




IKUR FRANKISTAK KENTZEKO PROGRAMA

ARGITARATZAILEA: Nafarroako Gobernua-Gobierno de Navarra
Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia

DISEINU ETA MAKETATZAILEA: Horixe Diseño

INPRIMATZAILEA: Idazluma S.A.

L.G. NA 752-2017



IKUR FRANKISTAK KENTZEKO PROGRAMA

-
1. IKUR FRANKISTAK KENTZEKO PROGRAMAREN HELBURUAK
 2. LEGE ESPARRUA
 3. SINBOLO, IDAZKUN ETA AIPAMEN FRANKISTEN ERROLDA
 4. KENTZEKO GOMENDIOAK
 5. KENTZEKO PROZEDURA
 6. HARREMAN ETA ARGIBIDEETARAKO GUNEA



1. IKUR FRANKISTAK KENTZEKO PROGRAMAREN HELBURUAK

Ikur frankistak kentzeko programaren bidez Nafarroako espazio publikoa demokratizatzea da Nafarroako Gobernuak lehenetsita dituen ildoetako bat memoria historikoaren arloan, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren bitartez. Legezko agindua da, baina bai eta memoriaren betebeharra ere, hau da, betebeharrak etiko bat gure iraganarekin, gure orainarekin eta gure etorkizunarekin.

Iraganaz mintzatzen garenean, ezinbestekoa da historia eta memoria bereiztea. Memoriak ez du historia ukatzen. Memoriak iraganari begiratzen dio ikusmolde kritiko batetik, demokratikoki adosteko gure historiaren zein elementuk merezi duten aintzatespen publikoa gaur egun. Horixe da ikur frankistak eta gerra zibilekoak kentzeko programaren helburua. Horrela, ikurrak kendu edo kaleen izenak aldatzen badira edo giza eskubideak urratzen parte hartu edo 1936ko kolpe militarra antolatzen, horren ondorengo indarkerian edo ondoko diktaduran nabarmen lagundu zuten pertsonei emandako goresmen sariak kentzen badira, bizikidetzak hobea eraikitzeke egiten da, ikur eta aintzatespen publiko horiek ez ditzaten biktimak iraindu. Azken finean, Nafarroaren memoria demokratikoa berreskuratzeko egiten da, eta bakearen, bizikidetzaren, askatasunaren eta demokraziaren balioak urratzen dituzten ikurrak gure espazio publikotik kentzeko.



2. LEGE ESPARRUA

1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko **33/2013 Foru Legeak** bere **II. titulu**an ezartzen du zein diren administrazio publikoen eta entitate pribatuen betebeharrak sinbolo, idazkun eta aipamen frankistak kentzeari dagokionez, bai eta sari, izendapen, titulu eta ohore instituzionalak baliogabetzeari dagokionez ere:

10. artikulua. *Sinbolo, idazkun eta aipamen frankisten errolda.*

Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak sinbolo, idazkun eta aipamen frankistei buruzko zentsua prestatuko du, eta Nafarroako Gobernuari aurkeztuko dio.

11. artikulua. *Sinbolo, idazkun eta aipamen frankistak kentzea.*

Nafarroako Gobernuak, bere eskumenez baliatuz, behar diren neurriak hartuko ditu altxamendu militarra, Gerra Zibila eta diktadurako errepresioa pertsonalki nahiz kolektiboki goratzeko armarriak, intsigniak, plakak eta gainerako objektu edo aipamenak kentzeko. Neurri horien artean, diru-laguntza edo laguntza publikoak kentzea ere sartzan ahalko da.

12. artikulua. *Sari, izendapen, titulu eta ohore instituzionalen baliogabetzea.*

Nafarroako administrazio publikoek, foru lege hau argitaratu eta urtebeteko epean, berraztertu eta baliogabetu egingen dituzte erregimen frankistarekin zerikusia izandako pertsonen jasotako sariak, izendapenak, ohorezko tituluak eta gainerako goraiamenak, eta, urtebeteko epe horretan, behar diren zuzemenak egingen dituzte aurreko horiei buruzko ziurtagiriak egiteko. Ziurtagiri horiek publiko egingen dituzte administrazio desberdinek, eta Espainiako Gobernuari igorriko dizkiete.

Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak, 2016ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, ikur frankisten behin-behineko zentsua eta ikur horiek kentzeko gomendioak onetsi zituen, eta Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren esku utzi zuen zentsu hori Nafarroako Gobernuari igortzea.

Nafarroako Gobernuak, 2016ko azaroaren 30eko erabakiaren bidez, jakitun dela adierazi eta berretsi zuen ikur frankisten behin-behineko zentsua eta onartu zituen ikur horiek kentzeko gomendioak, Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak prestatuak. Halaber, erabaki zuen Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren esku jartzea beharrezkoak ziren jarduketak eta proposamen guztiak, behin-behineko zentsu berretsia eguneraturik egon zedin, bai eta ikur frankistak kentzeko onartu diren gomendioak betetzeko ere. Nafarroako Gobernuaren azaroaren 30eko erabakia 2017ko 9. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara, urtarrilaren 13an.



3. SINBOLO, IDAZKUN ETA AIPAMEN FRANKISTEN ERROLDA

Ikur frankistei buruzko zentsuak hainbat ikur, idazkun, aipamen, goresmen sari, izendapen, ohorezko titulu eta erregimen frankistari lotutako pertsonak goraiatzeko gainerako moduak hartzen ditu kontuan.

Zentsu hau prestatzeko, toki entitateen lankidetzaz eskatu zen lehen-lehenik, baita Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarena ere. Hasierako informazio horretatik abiatuta, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak txostena eskatu zion Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu-funtsari, zentsuak babes akademikoa izan zezan.

1. TAULA:

NAFARROAN AZTERTU DIREN UDALERRIEN KOPURUA ETA ZERRENDEN ORDEZKAGARRITASUNA.

EGILEA	NAFARROAKO MEMORIA HISTORIKOAREN DOKUMENTU-FUNTSA
Aztertutako udalerrien kopurua	141
Udalerrien %	51,6
Biztanleriaren %	76,5

Iturria: Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu-funtsa. Nafarroako ikur frankistei buruzko txostena (2016).

Ikur frankistei buruz onetsi den zentsua irekia da eta ez behin betikoa, hainbat arrazoirengatik. Lehenik, gaur egun Nafarroako espazio publikoari buruz dugun argazki partzial bat, nahiz garrantzitsua, da eta ezagutzen ez ditugun beste ikur batzuk agertzearekin aldatzen ahal da. Zenbait udalek, 1. taulan ageri den moduan, ez diote gure lankidetzaz eskaerari erantzun, eta ezinezkoa izan da, horretarako zegoen denboran, Nafarroako kaleen izendegi guztia aztertzea, bai eta udalen osoko bilkuren akta liburu guztiak ere, kolpe militarrean, ondoko errepresioan eta indarkerian edo diktaduran parte hartutakoak seme adoptibo edo kutun bihurtzeko hartu ziren erabakiak aztertzeko. Aldi berean, ez dago gaur egun ikerlan historiko behar bezain sakonik zehaztu ahal izateko zenbaterainoko laguntza edo parte-hartzea izan zuten pertsona batzuek 1936. urtetik aurrera eta erregimen frankistan giza eskubideak urratzen. Arazo franko daude oraindik artxiboetan eta dokumentu iturrietan sartzeko, gertatuaren ezagutza xehakatuago eta zehatzagoa izateko. Izatez, Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu-funtsak prestatutako txostenean behin baino gehiagotan adierazten da zenbait kasutan egin beharko direla “beste ikerlan batzuk [...] argiago zehazteko zer lotura duten pertsona hauetako batzuek erregimen frankistarekin [...] ziurtasun handiagoz erabaki bat hartu ahal izateko”.

Bigarrenik, aipatu txostenean adierazten den gisara, “bildu ezin izan diren aspektu batzuk daude [...], ikur frankisten azterlan integral batean heldu beharko lirakekeenak. Besteak beste, hilerriei dagokien guztia nabarmentzen da [...], ikerlan monografikoa beharko lukeena; lege tratamendu berezitua ere beharko luke, eremu horretan publikoaren eta pribatuaren arteko konbinazioa bereziki zaila delako”.

Horregatik guztiagatik, zentsu hau eta, hortaz, bertan bildutako ikurrekin jokatzeko gomendioak, lehen urratsa dira Nafarroako espazio publikoak beharrezkoa duen demokratizazio horretan. Garrantzitsutzat jotzen dugun lehen urratsa, aurrera egin behar duena 36ko indarkeriaren biktimekiko erreparazioaren



bidean, Nafarroan memoria demokratikoa irekitzeko eta azpian dituen oinarrien eta bizikidetzaren indartzeko bidean; oinarri horiek, ezinbestean, etika politikoa eta demokrazia dira.

Ondoko taulan agertzen dira zentsu honek ekarri dituen datuak:

2. TAULA: FRANKISMOAREKIN LOTURIKO IKUR BEREZIEN SAILKAPENA.

TIPOLOGIA	KOPURUA	%
Eraikin publikoetako eta espazio publikoetako ikurrak	220	98,21
Etxebizitza-eraikinetako plakak edo lauzak	152	69,09
Ereintzak	53	24,09
Eroritako enplaka elizen fatxadetan	14	6,36
Erregimenari lotutako eszenen koadroak	1	0,45
Monumentuak eta monumentu multzoak	4	1,79
Eroritako en ohorezko gurutzeak espazio publikoetan	2	50,00
Eroritako en monumentua	2	50,00
IKUR BEREZIAK, GUZTIRA	224	100,00

Iturria: Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu-funtsa. Nafarroako ikur frankistei buruzko txostena (2016).

3. TAULA: FRANKISMOARI LOTURIKO PERTSONEN IZENDEGIA.

1. FRANCO BAHAMONDE, FRANCISCO.	13. JESÚS CLEMONS.
2. MOLA VIDAL, EMILIO.	14. FÉLIX MARSAL.
3. SANJURJO SACANELL, JOSÉ.	15. LOS ARCOS FERNÁNDEZ, JOSÉ.
4. PRIMO DE RIVERA, JOSÉ ANTONIO.	16. SAGARDOY ALLO, MATÍAS.
5. DOMÍNGUEZ ARÉVALO, TOMÁS (CONDE DE RODEZNO).	17. VALERO BERMEJO, LUIS.
6. LUIS ORGAZ Y YOLDI.	18. ARRESE MAGRA, JOSÉ LUIS.
7. JOSÉ SOLCHAGA.	19. ELOLA OLASO IDIACAÍZ, JOSÉ ANTONIO.
8. JOSÉ IRURETAGOYENA.	20. PASCUAL VISCOR, ÁNGEL MARÍA.
9. FRANCISCO GARCÍA ESCÁMEZ.	21. RUIZ DE ALDA MIQUELEIZ, JULIO.
10. RAFAEL GARCÍA VALIÑO.	22. EUSA RAZQUIN, VÍCTOR.
11. RICARDO RADA.	23. Karriken izenak Lourdes auzoan (Tutera)
12. JOSÉ ARELLANO DIHINX.	

Ikurrak kentzeko, toki entitate bakoitzak Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusian kontsultatzen ahalko ditu bereak.

4. KENTZEKO GOMENDIOAK

Gaur egun dugun zentsutik abiatuta, hainbat gomendio prestatu ditugu nola jokatu behako litzatekeen jakiteko, jakinik eskumena gehienbat toki entitateena dela. Haiek erabakiko dute zein den modurik egokiena ikur frankistak kentzeko, eta batzuetan haratago egiten ahalko dute ikurrak kentzeko prozesuetan; betiere, erabakiak txosten teknikoek babesturik.

A) *Armarria, San Fernandoren Gurutze Ereinoztuna.*

Francisco Franco diktadoreak 1937an eman zion Nafarroari San Fernandoren Gurutze Ereinoztuna eta armarrarian ezarri zen 1936ko kolpe militarrean lagundu zioten boluntario nafarren omenez eta aintzaz. Nafarroako armarriko gurutze ereinoztunak bidezko egiten du indarkeria ideia politiko batzuk defendatzeko eta gerran gizon emakumeak hiltzea goresten du.

GOMENDIOA. San Fernandoren Gurutze Ereinoztuna Nafarroako armarrari guztietatik kentzea, lehen aipatu 24/2003 Foru Legean eta 33/2013 Foru Legean ezarritakoari jarraituz.

B) *Martirien eta eroritakoek kulturako plakak eta eskultura elementuak.*

Harrizko edo marmolezko plakak dira, bai eta eraikuntza handiak ere, eskulturaren edo arkitekturaren. Kolpe militar baten ondorioz gerra zibilean hildakoen memoria goresteko egindako elementuak dira. Aurretik azaldu den moduan, horrelako elementuak indarkeria eta gerra goretsi eta justifikatzen dute ideia batzuk defendatzeko tresna gisa. Gainera, matxinatutako aldean hildakoen izenak jasotzen dira elementu horietan, eta bizikidetzan aurrera egitea galarazten duten elementuak dira, gure gizartearen haustura, indarkeria eta gerra gogorarazten baitizkigute.

GOMENDIOA. Lehen neurri gisa, multzoa kentzea proposatzen da, eta Vianako Printzea Erakundearen esku uzten da haren kontserbazioa, ondare historikoaren elementu gisa, gertatutakoaren oroitzapenena zaintzeko. Hori ezinezkoa bada, erregimen frankistaren garaipena goresten duten zati sinbolikoak plakatik edo eskulturazko edo arkitekturazko elementutik kentzea proposatzen da, hau da: armarriak, uztarriak eta geziak, Gurutzadari, Jeneralisimoari, Primo de Riverari egiten zaizkien aipamenak, edo idazkun goresgarriak, hala nola, Jainkoaren eta Espainiaren alde eroriak...

C) *Instituto Nacional de la Vivienda eta Obra Sindical del Hogar delakoen plakak.*

Erregimen frankistak Etxebizitzaren Institutu Nazionala sortu zuen, hirien hazkunde fisikoa kontrolatzeko helburuz eta, horrela, gizartea garatzeko eredu jakin bat bultzatzeko, FET y de las JONSen menpe. Horrela, diktaduraren urteetan etxebizitza multzoak eraiki ziren, eta haietan kartel handiak ezarri, Sindikatuen Delegazio Nazionalaren eta Etxebizitza Institutu Nazionalaren ikur gisa. Modu berean, ikur frankistak daramatzaten plaka txikiak ere ezarri ziren etxebizitza askotan, eta hala jarraitzen dute.

GOMENDIOA. Elementu horiek guztiak kentzea.



D) Seme adoptiboak edo kutunak izendatzea.

Diktaduran maiz ematen zitzaion seme adoptiboaren edo kutunaren titulua Francisco Francori eta erregimen frankistari lotutako beste pertsonaia batzuei, haien lana aintzat hartuta; alegia, berriz ere gerra eta erregimen bera aintzatetsiz.

GOMENDIOA. Edozein erakundek bultzaturik, tokikoa edo probintziakoa izan, giza eskubideak urratzeko prozesuetan erantzukizunen bat duten pertsonak seme adoptibo eta kutun izendatzeko hartutako erabakiak ezeztatzea.

E) Gerraren aintzatespen kolektiboa egiten duen auzoa.

Jainkoaren eta Espainiaren alde hildakoak aberriaren martiri bihurtu ziren eta ikur frankisten ardatzean ezarri ziren. Zenbait kasutan kolektiboki ere erabiltzen dira, hala nola, Tuterako Lourdes auzoan (edo Iruñeko Txantreakoan egin zen bezala), indarkeria ideia politiko batzuen defentsan aintzatetsi, justifikatu eta balioesteko elementu gisa: erregimen frankistaren hirigintzako lorpenak eta edozein eratakoak gerran alde irabazlean hildakoen sakrifizioari, gerra zibilean hildako gizon eta emakumeen sakrifizioari, eskertu beharreko arrakasta gisa aurkeztu zitzaizkion gizarteari 40.eko eta 50.eko hamarkadetan. Kasu honetan kontua ez da gerra zibilean hildakoen izen jakin batzuen balio sinbolikoa (edo ez kasu guztietan bederen), baizik eta konkretua gainditu eta kontuan hartzea sinbolismoa eta indarkeriaren gorespena, horregatik aukeratu baitziren izen horiek.

GOMENDIOA. Izen guztiak kentzea.

F) Kaleen eta beste espazio publiko batzuen (kirol, kultura edo hezkuntza arlokoak) izenak.

IRIZPIDEA: giza eskubideak urratzeko prozesuetan eta errepresioa eta indarkeria instituzionalizatzean zuzeneko erantzukizuna duten pertsonak

1936ko uztailaren 18an izan zen armadaren zati baten altxamendua Errepublikako gobernu legitimoaren aurka. Altxamenduan eta ondoko errepresioan giza eskubideak urratu zituzten ezin konta ahala prozesu gertatu ziren, eta haietan zuzeneko erantzukizuna izan zuten estamentu militarreko zein gizarte zibileko kideek. Altxatutako militarrek, gainerako sektore konspiratzaileekin batera, gobernu egitura politiko bat antolatu zuten –Defentsa Nazionaleko Batzordea, Estatuko Batzorde Teknikoa, Nazioaren Gobernu eta gobernadore zibilak– eta hark, gerra zuzentzeaz gain, indarkeria instituzionalizatu zuen erregimen frankistaren aurkakoen kontra.

GOMENDIOA. Izen guztiak kentzea. Zenbait kasutan –3. taulako izendegiaren 20, 21 eta 22 zenbakiak– justifikazioa alde aurretik arrazoituta, kultur merezimenduak edo bestelakoak kontuan izanda, erabakia hartu liteke beste esanahi bat emateko izen batzuei, baldin eta egiaztatua ez badago ekintza bortitzetan edo giza eskubideen urraketan parte hartu zutela. Erabaki hori bat heldu da Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu-funtsaren txostenak planteatzen duenarekin, non esaten baita zenbait kasutan izendatzeko merezimenduak diktaduratik kanpoko aferak direla, “esate baterako, literatur merezimenduen kasua”.



5. KENTZEKO PROZEDURA

Administrazio Publikoek, ezartzen zaien betebeharraren ondorioz, administrazio bakoitzaren titular-tasun publikoko ondasunen gainean jardun behar dute, baldin eta altxamendu militarra, Gerra Zibila eta diktadurako errepresioa pertsonalki nahiz kolektiboki goratzeko armarriak, intsigniak, plakak eta gainerako objektu edo aipamenak badituzte, horietan barne direla, eraikin pribatuetan ezarriak edo paratuak izanagatik, titulartasun publikoko ondasunak direnak, karriken izenak dituzten errotuluak, kasurako.

Ikurrak eraikin pribatuetan baldin badaude, eskumena duen administrazio publikoak, kasu honetan toki entitateak, kentzeko galdatu beharko du, eta ohartarazi, hala egin ezean, legozkiokeen diru-laguntza edo laguntza publikoak gal litzakeela.

Toki administrazioek, beren autonomiaren esparruan, ikur horiek kentzeko erabakia hartu beharko dute, legezko agindua aplikaturik. Udal organo eskudunaz den bezainbatean, legeak zehazten ez duenez, posible dira bi bide: eskumen hori Osoko Bilkurari ematea, TAOLaren 22.2 b) eta 123.1. e) artikuluekin parekatuta; edo alkateari, TAOLaren 21.1.s) eta 124.4. ñ) artikuluek ematen dioten hondar eskumena-ren ondorioz.

Toki entitateek gomendio hauek aiseago bete ditzaten, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak toki entitateendako diru-laguntza deialdi bat ezarriko du, jarduketa hauen finantzazioan laguntzeko.

6. HARREMAN ETA ARGIBIDEETARAKO GUNEA

Prozedurari buruz edozein zalantza argitzeko, edo behin-behineko zentsuan ikur berriak gehitzeko, edo ikurrak kentzean egindako aitzinamenduak jakinarazteko, harremanetan jartzen ahal dira Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiarekin.

Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia

Memoria Historikoaren Atala

Arrieta, 12-5. solairua.

Telefonoa: 848 42 65 22

Posta elektronikoa: pazyconvivencia@navarra.es